

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 5/2017 Zerga premiazko araugintzako dekretua, abuztuaren 3koa, Arabako zerga araudiari egokitzen dizkiona balio erantsiaren gaineko zergan, zerga berezietan eta berandutze interesean egindako hainbat aldaketa

Ekainaren 27ko 3/2017 Legea, Estatuaren 2017rako aurrekontu orokorra, onartzeak eta argitaratzeak berekin ekarri dute aldaketak egin behar izatea balio erantsiaren gaineko zergaren eta zerga berezien araudietan.

Era berean, aipatutako legeak ehuneko 3,75ean finkatzen du berandutze interesa, 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko aldirako.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartutakoak, 26. eta 33. artikuluetan xedatzen duenez, balio erantsiaren gaineko zerga eta zerga bereziak itunduak dira, eta ezartzen du ezen, salbuespen jakin batzuk izan ezik, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dituztela lurralde historikoetako erakunde eskudunek.

Horiek horrela, Arabako Lurralde Historikoko zerga arautegian txertatu egin behar dira aipatutako zergetan egindako aldaketak.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpideari jarraitu zaio, zeina urriaren 1eko 39/2015 Legearen, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenaren, 129. artikuluan arautu baita.

129. artikulua horretan araututako premia, efikazia, proportzionaltasun, segurtasun juridiko, gardentasun eta efizientzia printzipioei dagokienez, xedapen arauemaile horren helburua Arabako Lurralde Historikoko edukizko eta formazko arauak Estatuak ezarritakoetara egokitzea denez, horri dagokio azterketa hori egitea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau izapidetzean, horrelako xedapenentarako honako hauetan aurreikusitako izapideei jarraitu zaie: maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretua, xedapen orokorrak egiteko prozedura onartzen duena; araugintza eraginaren eta genero eraginaren txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikako jarraibideak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako araugintza eraginaren txosten laburra aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 8. artikuluan, eta abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege jaurbidearenak, Foru Aldundiari ematen dizkien ahalmenez baliatuta, presako arrazoiak direla eta, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. Aldatzea urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua, balio erantsiaren gaineko zergarena

Lehenengoa. 2017ko ekainaren 29tik aurrerako ondorioekin, aldatu egiten dira urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren, balio erantsiaren gaineko zergarenaren, agindu hauek:

Bat. 20. artikulua Bat puntuaren 18. idatz zatiaren j) letra aldatu da eta honela geratu da:

“j) Erosketa, salmenta edo truke eragiketak eta antzeko zerbitzuak, xedetzat ordaintzeko legezko bitartekoak diren txanponak, banku billeteak eta dibisak dituztenak, salbu bildumetako txanponak eta billeteak eta urre, zilar eta platinozko piezak.

Aurreko lerroaldean ezarritakoaren ondorioetarako, bildumetakotzat joko dira normalean ordaintzeko legezko bitarteko gisa erabiltzen ez diren txanponak eta billeteak, edo numismatika interesa dutenak, salbu jaulkitzaileak ageriko balioko edo hortik beherako zenbatekoaren truke emandako bilduma txanponak, zeinak zergatik salbuetsita egongo baitira.

Salbuespen hori ez zaie ezarriko arau honen 140. artikulua 2. zenbakian ezarritakoaren arabera inbertsio urretzat jotzen diren urrezko txanponei.”

Bi. 91. artikulua Bat idatz zatiaren 2. paragrafoaren 2. eta 6. zenbakiak aldatu dira eta honela geratu dira:

“2. Ostalaritza, kanpatze eta bainuetxeetako zerbitzuak, jatetxeetakoak eta, oro har, unean bertan kontsumitzeko janari eta edarien hornikuntza, baita hartzaile izango denak aurrez eskatuta egiten badira ere.”

“6. Honako hauetarako sarrera: liburutegiak, artxiboak eta dokumentazio zentroak, museoak, arte galeriak, pinakotekak, antzokiak, zirkuak, zezenketak, kontzertuak eta zuzeneko gainerako kultura ikuskizunak.”

Hiru. Eranskinaren zortzigarren idatz zatiaren lehen marratxoa aldatu da, eta honela geratu da:

“– Betaurrekoak, betaurreko graduatuetarako eustoinak, ukipen lente graduatuak eta horiek erabiltzeko, kontserbatzeko eta mantentzeko behar diren produktuak.”

2. artikulua. Aldatzea otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretua, zerga bereziak arautzen dituenak

2016ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, otsailaren 16ko 1/1999 Zerga Premiazko Araugintzako Dekretuaren, zerga bereziak arautzen dituenaren, 52 ter artikulua bat idatz zatia aldatu da, eta honela geratu da:

“Bat. a) Nekazariari eskubidea aitortzen zaie gasolio eskuraketetan hidrokarburoen gaineko zerga dela eta ordaindu edo jasan dituzten kuotak itzul dakizkien, baldin araugintza dekretu honen 50.1 artikulua 1. idatz zatiaren 1.4 epigrafeko tasan zergak ordaindu badituzte aurreko urte naturalean.

b) Itzuli beharreko kuoten zenbatekoa kalkulatzeko 1.000 litroko 63,71 euroko tasa aplikatu behar zaio adierazitako aldiari nekazaritzan (baratzezaintza, abeltzaintza eta basogintza barne) benetan erabilitako gasolio bolumenari (mila litrotan adierazita).”

3. artikulua. Berandutze interesak

Otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, 26. artikuluko 6. idatz zatian aipatzen duen berandutze interesen tasa ehuneko 3,75 izango da 2017ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean sartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean. Ondorioak, hala ere, artikuluetan adierazten den bezala sortuko ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko abuztuaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ